



59. Donostiako Zinemaldia Hizkuntza erabileraren neurketa

Aurkibidea

1.	SARRERA.....	3
2.	METODOLOGIA.....	3
3.	NEURKETAREN EMAITZAK.....	4
3.1.	MATERIAL IDATZIA.....	4
3.1.1.	Argitalpenak	
3.1.1.1.	Filmez filmeko gida.....	4
3.1.1.2.	Programazio aurrerapenaren txostena.....	5
3.1.1.3.	Nazioarteko Zinemaldiaren Informazio liburua.....	5
3.1.1.4.	Beste material idatzia.....	5
3.1.2.	Zinemaldiko kartela.....	5
3.1.3.	"Zinemaldia" egunkari ofiziala.....	5
3.1.4.	Iragarkiak.....	7
3.1.5.	web gunea.....	7
3.1.6.	Abonu, gonbidapen, sarrera eta akreditatuentzako materiala.....	8
3.1.7.	Prentsa harremanak.....	8
3.2.	AHOZKO ERABILERA.....	9
3.2.1.	Ekitaldi Nagusiak.....	9
3.2.1.1.	Inaugurazio eta Amaiera ekitaldiak.....	9
3.2.1.2.	Donostia Saria ekitaldia.....	9
3.2.1.3.	Zinemira Sari-emate gala.....	9
3.2.2.	Prentsaurrekoak.....	9
3.2.3.	Aurkezpenak eta mahai-inguruak.....	10
3.2.4.	Jendaurreko zerbitzuak.....	10
3.3.	FILMAK.....	10
4.	ONDORIOAK.....	10
4.1.	FILMAK.....	11
4.2.	IDATZIZKO MATERIALA.....	11
4.2.1.	Zinemaldiaren argitalpenak eta beste materiala.....	11
4.2.2.	Zinemaldia egunkaria.....	11
4.2.3.	Web gunea.....	12
4.2.4.	Prentsa oharrak eta bestelakoak	12
4.2.5.	Zinemaldiak argitaratu ez duten materiala.....	12
4.3.	IRAGARKIAK.....	12
4.4.	AHOZKO ERABILERA.....	13
5.	PROPOSAMENAK.....	14
6.	ERANSKINAK.....	16
7.	IRITZI ARTIKULOAK	19

1. **SARRERA**

Donostian urtero antolatu ohi den Zinemaldian, aurtengo edizioan ere, hizkuntz erabilera neurtzea erabaki du BAGERA Donostiako Euskaltzaleen Elkartek, aurreko urteetan egindako azterketari jarraipena emateko asmoz. Nazioarteko Zinemaldiak, besteak beste, Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako Udalaren diru-laguntza jasotzen du. EAEn euskara hizkuntza ofiziala denez, eta Donostiako Udal Ordenantzek hala jasota dutenez, euskarak, gutxienez, gazteleraren trataera berdina izan behar du.

Urteroko behaketa honekin, euskarari eskaini zaion trataerak aldaketarik jasan duen eta, orokorrean, eskaini zaion presentzia zer nolakoa izan den jakitera eman nahi dugu. Emaitzak ikusita, honako azterketa hau baliagarria zaigu, jakin ahal izateko nolako proposamenak egin daitezkeen eta zein planteamendurekin.

2. **METODOLOGIA**

Hamazortzi urtez egin du BAGERA Elkartek Zinemaldiaren neurketa eta, beraz, aurreko hamazazpi urteetako datuak aurrean izan ditugu neurketa egiterakoan. Zinemaldiak bere gain hartzen dituen momentu guztiak neurtzen saiatu gara. Filmen aurkezpenak eta mahai-inguruak, euskaraz azpidatztako edota bikoiztutako film kopurua, programazio aurrerapenaren txostena, filmez filmeko gida, "Zinemaldia" egunkari ofiziala, kartelak, etab. neurtu ditugu.

Behaketa aurrera eramateko orduan, bagerakideen laguntza ezinbestekoa izan da. Halere, elkartetik kanpoko kolaboratzaileak ere izan ditugu.

Neurketa egiterakoan, 3 multzo desberdindu ditugu:

a) Material idatzia: Material idatzi ugari izaten da Nazioarteko Zinemaldian. Antolakuntzaren argitalpenak (Filmez filmeko gida, programazioaren aurrerapen txostena ...), kartelak, "Zinemaldia" egunkaria, web gunea, errotulazioak etab. izaten ditugu aztergai. Baita, Donostiako kaleetako iragarki panelak etab. .

b) Ahozko erabilera: Ekitaldi Nagusiak, prentsaurrekoak, film emanaldietako aurkezpen eta mahai-inguruak eta jendaurreko zerbitzuak aztertzen ditugu atal honetan. Zein hizkuntza erabiltzen den, eta bakoitza zein neurritan, hartzen dugu kontuan.

c) Filmak: Zinemaldiak irauten duen egunetan zenbat pelikula eta zenbat emanaldi proiektatuko diren kontuan hartu eta horietatik euskarara bikoiztutakoak edota azpitolulua dutenak zenbat izan diren azalduko dugu.

3. **NEURKETAREN EMAITZAK**

Hainbat atal neurtu ondoren, arloz arlo, neurketaren emaitzak emango ditugu ezagutzera. Azkenik, ondorioak eta aurrera begirako proposamenak azalduko ditugu.

Ohar moduan honakoa argitu nahi genuke: txostenean zehar bi eletan adierazten denean, euskara eta gaztelera erabiltzen direla esan nahi da. Eta hiru eletan esaten denean, aldiz, euskara, gaztelera eta ingelesa erabiltzen direla esan nahi da.

3.1. **MATERIAL IDATZIA**

3.1.1. **Argitalpenak**

3.1.1.1. **Filmez filmeko gida**

86 orrialdeko gida aztertu eta gero, azterketak ondorengo emaitza eman du:

Liburuxkan testu guztiak hiru eletan daude: euskaraz, gaztelera eta ingelesez, aipatutako ordenan eta, kasu guztietan, bata bestearen itzulpenak dira, hala ere, gaztelera azalpena letra lodiz idatzita agertzen denez, gehiago ikusten da. Bestetik, orrien alboetan sailen izen gehienak gaztelera daude: 5 gaztelera (Sección Oficial, Horizontes Latinos, Velódromo, Sombras digitales eta Cine Mexicano Contemporáneo), 2 euskaraz (Zabaltegi eta Zinemira), 1 euskara- ingelesez (Culinary Zinema), beste 2 ingelesez (Made in Spain eta American way of death) eta azkenik 1 izen propioa da (Jacques Damy). Argitalpen datuetan lekuen izenak ere, gaztelera daude (Corea, China, EEUU, España, Japón...). Beste zenbait ohar, aldiz, hiru eletan daude.

Azalean aurtengo edizioko kartela hiru eletan azaltzen da. Kontrazalean datorren iragarkia (Kutxarena) gaztelera dago, "Misión: Gaztekutxa. Este año disfruta del Zinemaldia con ventajas de película".

Filmez filmeko gidarekin batera, ongi etorri gida, 2 eskuorri eta euskarazko hiztegi txikia banatu dituzte:

- **Ongi etorri gida** hiru eletan idatzia dago, lehenengo euskaraz (6. orrialdetik 20.era), gaztelera ondoren (22tik-36ra) eta ingelesez jarraian (38tik-50era). Hiriko planoan markatuta dauden puntuen izenak ere bi eletan daude (gaztelera lehenengo euskaraz ondoren) baina mapan agertzen diren kaleen izenak gaztelera bakarrik irakur daitezke. Ondoren "informazio praktikoa" atalean (bidai agentziak, lojamenduak, kontsulatuak, museoak...) helbide eta izenak gaztelera bakarrik azaltzen dira. Iragarkiei dagokien 20 dira orotara, 10 gaztelera hutsez (Keler, Samsumg, Vallina, Nesspresso, Audi, La Perla, Kutxa, Basque Culinary Center, Sephora eta Cookie Box), 4 bi eletan (Euskaltel, Ni neu eta Euskadi Turismoa, Serbitzu), 1 euskaraz (Hontza), 1 hiru hizkuntzatan (La Caixa), 1 lau hizkuntzatan (Europako Kultur Hiria), 1 ingelesez (Gucci), 1 gaztelera eta ingelesez (Magma) eta beste bat hizkuntza gabea baina helbidea gaztelera duena (People).
- Sarrerak eskuratzeko azalpenak ematen dituen esku orria bi eletan dago, bata bestearen itzulpen gisa.
- Poltsiko egitarauan, Sail batzuk gaztelera bakarrik azaltzen dira (*sección oficial, Velódromo, Cine infantil, Gala TVE, Gala Eitb, Sombras Digitales, eta Cine Mexicano*). Lekuen izenei dagokionez, horiek ere gaztelera hutsean daude (*Principal, Príncipe, Velódromo, Sala Kutxa, Museo San Telmo*) eta informazioa hiru eletan.
- Donostia Turismoak eta Euskararen Udal Patronatuak udarako ateratako Euskarazko Hiztegi Txikia ere banatu dute. Hiztegia zortzi hizkuntzatan dago.

- Azkenik, prentsa emanaldietarako banatutako orrian, egunak (bi eletan) eta azpiko ohar bat izan ezik (hiru eletan dagoena) gaztelera gailentzen da nabarmen. Sailen izen gehienak gaztelera daude eta filmen nondik norakoak ere gaztelera hutsean.

3.1.1.2. Programazio aurrerapenaren txostena

Sarreran zeuden bi langileak txostena euskaraz edo gaztelera nahi zenuen galdetzen zuten eta horren arabera bata zein bestea har zitekeen.

3.1.1.3. Nazioarteko Zinemaldiaren informazio liburua

Liburuak 316 orrialde ditu. Azalean, Zinemaldiaren kartel ofiziala dago eta kontrazalean tve-ren iragarkia dago gaztelera. Barruan guztia hiru eletan dago (lehenengo euskaraz, ondoren ingelesez eta jarraian gaztelera).

Liburuan 20 iragarki daude, orrialde osokoak. Horietatik 5 iragarkitan soilik ikus daiteke euskararen arrastoa (Serbitzu, Euskaltel, El Diario Vasco, Eitb eta Donostia Kultur Hiria). Beste 14 iragarkiak gaztelera hutsez daude edo gaztelera nagusi duten iragarkiak dira (Audi, Gobierno de España, Aecid, Technicolor, Kutxa, TCM, Samsung, Imasblue, FC 4+1, Vivación, Filmotec, Nesspresso, Culinary Zinema eta TVE) eta bat ingelesez (Media).

3.1.1.4. Beste zenbait material idatzi

Zinemaldian zehar topatu ditugun esku orri gehienak (Donostiako Zinemaldiarekin batera antolatu diren edo babesten zituzten ekintzenak), gehienak bi eletan argitaratu dituzte. Hala nola, *Zinema estudio txikia*, Mapfre fundazioak Donostiako Zinemaldiarekin batera antolatuta, haurrak zinema-mundura gerturatzeko kaleratutako material guztia, bi eletan irakurri ahal izan dugu (haur zinema egitaraua zein jardueren egutegia, gainera, euskarari lehentasuna emanaz). "Obra Sozial la Caixa"k *Federico Fellini. Ilusioen Zirkua* erakusketarako argitaratutako esku orria ere, bi eletan jaso dugu (Ezkerreko aldean gaztelera eta eskuinekoan euskaraz). Ez da horrela gertatzen *FC4+1* Mapfre fundazioak Mexikoko Zinematografia Institutuaren laguntzarekin kaleratutako liburuxkarekin; gaztelera eta ingelesez dago.

Bestetik, Zinemaldian zehar jarritako panel informatiboetan hutsuneak izan dira, hala nola, Kursaal sarreran jarritako informazioa gaztelera zegoen (nuevos directores, subtítulos en ..., especiales media noche, proyección película ganadora del premio..., ...). Bestetik, Kurasaalean jarritako material postuan, ohar guztiak euskaraz eta gaztelera irakur zitezkeen, bi txartel izan ezik: "Cartel grande 10€" eta " cartel pequeño 7€.

3.1.2. Zinemaldiko kartelak

Aurten zinemaldiak 6 kartel izan ditu: Sail Ofiziala (hiru eletan, lehenengo gaztelera, ondoren euskaraz eta azkenik ingelesez hizki txikiagoan), "Zabaltegi" sailekoa (euskaraz) eta "Horizontes Latinos" sailekoa (gaztelera). Atzera begirako hiru ziklo izan dira (Jacques Demy), "American way of Death" (Amerikako zinema beltza) ingelesez eta "Sombras digitales" (Azken belaunaldiko zinema txinatarra) gaztelera. Izenburuaz gain, guztietan data bi eletan dago (lehenengo euskaraz eta ondoren gaztelera).

3.1.3. "Zinemaldia" egunkari ofiziala

Zinemaldian egunero kaleratzen den egunkaria aztertu dugu.

Aurten ere, beste urteetan bezala, Zinemaldiko antolatzaileekin eta Euskararen Udal Patronatuko teknikariek ezarritako irizpideak erabili ditugu azterketa honetarako. Egunkaria atalka banatu dugu eta horren arabera, atera ditugu emaitzak eta ondorioak. "Zinemaldia" egunkarian agertzen diren iragarkien azterketa txostenaren 3.1.5 atalean azalduko dugu.

Batetik, zintiloak, argazki oinak, programazio atala, filmen sinopsiak, agenda eta staff atala aztertu ditugu. Guztiak kontuan hartuta gaztelera nagusitzen da. Film sinopsiak beti hiru eletan izan dira, zintilo nagusiak bi eletan edo hiru eletan izan badira ere. sailen izenak gaztelera letraz idatzi eta modu deigarriago batean jarrita daude. Staff-a, berriz, aurten lehen aldiz, euskara hutsean jarri da egunero. Azkenik gainontzeko ataletan gaztelera da nagusi; besteak beste argazki oinak, programazio atala, agenda,

Bestetik, egunkariaren muina aztertu dugu, hau da, artikuluen bi sailkapen egin ditugu: batetik zabaleraren arabera, nagusi eta laburren artean bereizi dugu eta bestetik sailaren arabera sailkatu ditugu.

Orokorrean hartuta, hau da, sail guztietako artikulua nagusiak eta laburrak batuta, gaztelera nagusi dela ikus daiteke (%62,60), eta ondoren euskara eta ingelesa maila berean (%18,60).

Artikulu nagusietan, gaztelera nabarmenki nagusitzen da (%78,38), ondoren euskara (%13,51) dago eta maila apalagoan ingelesa (%8,69). Iazko datuekin alderatuta gaztelera idatzitako artikuluek gora egin duten heinean (%75etik %78,38era), bistakoa da euskarazkoak jaitsi egin direla (%20,31etik %13,51era); ingelesezkoak, aldiz, gutxitu egin dira. Artikulu laburretan, iaz bezala, ingelesa eta gaztelera izan dira nagusi (%46,52 eta %37,97), eta ondoren euskara (%15,51). Iazko datuekin alderatuta euskarazko artikulua laburrak zerbait igo badira ere, oso urriak izaten jarraitzen dute.

Sail bakoitzari eskainitako artikulua zein hizkuntzatan azaldu diren aztertuz gero, euskarari egindako tartearen emaitza oso desberdina da sailaren arabera:

- **Inaugurazio egunari** eskainitako artikulua nagusien erdiak gaztelera idatzi dira (%50), gainerakoak euskaraz eta ingelesez (%25 eta %25). Sail honetako artikulua labur gehienak (%66,67) gaztelera idatzi dira, gainerakoak euskaraz eta ingelesez neurri berean (%16,67).

- Sail ofizialean gaztelera idatzi diren artikulua nagusi gehienak (%66,67), eta beste %33,33a euskaraz idatzi da. Artikulu laburretan, berriz, ingelesezkoak nagusi dira nabarmen (%60,71), euskaraz %21,43 eta gaztelera %17,86 dira. Aipatu beharra dugu, aurten, iazko datuekin alderatuta, euskarazko artikulua laburrak igo direla (%13,04etik %21,43era).

- **Zabaltegin**, artikulua nagusiei dagokienez, gaztelera idatzitakoak gailendu dira (%75) eta euskaraz idatzitakoak %25 izan dira (iaz, berriz, %19,05 izan ziren). Artikulu laburretan ere, gaztelera idatzitakoak gailentzen dira (%43,75), ondoren euskarazkoak (%37,50) eta azkenik ingelesezkoak (%18,75). Sail honetan, artikulua nagusietan, euskaraz idatzitakoak urte urte behera zihoazen nabarmen baino aurten zertxobait igo dira.

- **Horizontes Latinos** sailari buruzko artikuluetan ez zaio lekuri eskaini euskarari, artikulua nagusietan euskaraz idatzitako artikulurik ez da egon, guztiak gaztelera idatzita daude eta laburretan %100 ingelesez izan dira.

- **Belodromoan** emandako filmi buruzko artikulua nagusietan, %60 gaztelera idatzi da eta %40 euskaraz. Artikulu laburretan, %50ean gaztelera erabili da, eta gainerakoa neurri berean euskaraz eta ingelesez idatzi dira (%25 bakoitzean). Iaz

artikulu laburretan, ingelesa bakarrik erabili zen, aurtan aldiz gaztelera gailendu da, artikuluen erdia izatera iritsi arte.

– **Jacques demy** atalean, artikulu nagusi gehienak gaztelera izan dira (% 75), ondoren ingelesez (%16,67) eta euskaraz azkenik %8,33 Artikulu laburretan aldiz, hiru hizkuntzak maila berean erabili dira.

– **Culinary Zinema** atalean, artikulu nagusietan gaztelera gailendu da (%83,33). Artikulu laburretan euskararen presentziarik ez da egon, %66,67 ingelesez eta %33,33 gaztelera izan da. Bestetik, sail honen izenburua "Culinary Zinema" "Z"taz bada ere, aipatu behar da artikuluen izenburuan "C"-rekin dagoela (Culinary Cinema). Sail honen inguruan azaldu diren iragarki guztiak gaztelera izan dira.

– **4+1 Mexikoko Zinema Garaikidea sailean**, artikulu guztiak (bai nagusiak zein laburrak) gaztelera hutsean izan dira.

– **American way of death** sailaren inguruan idatzi diren artikulu nagusi gehienak ere, gaztelera izan dira (%90). Euskaraz %10 bakarrik izan da. Laburretan, portzentajeak artikulu nagusietakoen antzekoak dira, %86,67 gaztelera eta %13,33 euskaraz. Ez da ingelesezko artikulurik izan.

– **Itzal digitala atalean**, oso artikulu gutxi izan dira eta gaztelera izan da erabili den hizkuntza bakarra.

– **Made in Spain sailean**, ez da euskarazko artikulurik izan. Artikulu nagusi guztiak gaztelera izan dira eta artikulu labur guztiak ingelesez.

– **The industry club** atalari dagokionez, aurtan lehenengo aldiz, euskara artikulu laburretan erabili da (%3,85). Artikulu nagusiak ingelesez (% 85,71) eta gaztelera (%14,29) izan dira guztiak. Artikulu nagusietan zein laburretan ingelesa izan da nagusi.

– **Donostia Sariak** ataleko artikulu nagusiak, gaztelera izan dira %100ean. Laburretan, ere, gaztelera izan da nagusi (%66,67), eta ondoren euskaraz idatzitakoak (%33,33). Ingelesez ez da artikulurik idatzi.

– **Epaimahaia**ri buruzko artikuluetan ere gaztelera izan da nagusi, nagusietan %100 eta laburretan %60. Euskarazko artikulu laburrak %4 izan dira, ingelesezkoak aldiz, %36.

– **Berriak eta sarien** artikuluei dagokienez ere, gaztelera izan da artikulu nagusietan erabili den hizkuntza bakarra. Artikulu laburretan gaztelera (%79,17) izan da garaile, euskara ondoren (%12,50) eta ingelesa azkenik (%8,33).

– **Ikasleen topaketan** atalean, artikulu nagusietan elebitasuna mantendu da (%50 euskaraz eta %50 gaztelera). Artikulu txikietan, berriz, euskararen presentziarik ez da izan eta gaztelera izan da hizkuntza nagusia (%66,67).

– **Zinemira** atalari buruz gutxi izan dira idatzitako artikuluek. Gehienak sail honetan ere gaztelera izan dira (%60) eta gainerakoak euskaraz (%40). Iazko datuekin alderatuta gaztelera artikuluek igo diren heinean euskarazkoak jaitsi egin dira. Artikulu laburren kasuan, ingelesa izan da nagusi (%66,67) eta %33,33 gaztelera izan dira iaz bezala.

- 1. eranskinean, idatziz azaldutako guztia zenbakitan erakusten duen taula aurkezten dugu (datuak ehunekotan daude).
- 2. eranskinean, taulan azaldutako datuak ikusteko hainbat grafiko erantsi ditugu. Eta iazko datuen konparaketa.
- 3. eranskinean, "Zinemaldia" egunkarian argitaratutako iragarkiak. Eta iazkoarekin konparaketa.

3.1.4. Iragarkiak

“Zinemaldia” egunkari ofizialean egunero argitaratu diren iragarkien azterketa egin dugu. Gaztelera soilik erabiltzen duten iragarkiak nagusi dira (%66,33). Jarraian bi eletan (%19,90), hiru edo hizkuntza gehiagotan (euskara barne) egindakoak (%7,65), hizkuntza gabekoak (%2,55) eta euskara hutsezkoak (%1,53),. Iazko datuekin konparaketa eginez gero, gaztelerazko iragarkiak gehiago izan diren arren (98 iragarkitik 130era), aurtengo egunkariaren edizioetan iragarki kopurua handitu denez (130 iragarkitik 196ra), ehunekoetan gazteleraz idatzitako iragarkiak jaitsi egin dira (%75,38tik 66,33ra). Aldaketa nabarmenena, iragarki berean hizkuntza bat baino gehiago erabili dituzten iragarkietan ikusi dugu (hau da, bi eletan, hiru eletan edota hizkuntza gehiago erabili diren iragarkietan, euskara barne). Horrelakoak bikoiztu egin dira. Euskara hutsezko iragarkirik, berriz, aurtan ia ez izan. Iragarle bakarrak erabili du (Kutxak) eta 3 egunetan bakarrik, besteetan gaztelera izan da erabili duen hizkuntza (beste 6 egunetan).

3.1.5. Web gunea

Web gunean lehenik hizkuntza aukeratzeko pantaila agertzen da. Gaztelera, euskara edo ingelesa aukeratzeko eskatzen zaigu. Behin aukeratu ondoren hizkuntza guztietan aukera berdinak eskaintzen ditu. Web guneak duen hutsune nabarmenena bideoetan dago. Prentsaurrekoak, elkarrizketa, filmak... gazteleraz daude edota gaztelerara itzulita edo gaztelerazko azpitituluekin daude gehienak. Bestetik, iaz zeuden hutsune batzuk zuzendu egin dira (Donostiako mapan intereseko puntuen helbideak aurtan euskaraz daude, filmetako fitxa guztiak euskaraz daude, oinarriak bi eletan ...).

3.1.6. Abonuak, gonbidapenak, sarrerak eta akreditatuentzako materiala

Beste urteetan bezala, aurtengoan ere bi eletan ageri da informazio guztia bai abonuetan, bai gonbidapenetan eta baita sarreretan ere. Aurkezpen ofizialetako gonbidapenak ere bi eletan daude.

Akreditatuentzat banatutako materialean zeuden txartelak hiru eletan zeuden (argitalpenak erosteko txartela, zinemaldiko poltsarengatik trukatzeko txartela eta akreditazioak baimentzen dizunaren oharrak azaltzen dituen txartela).

3.1.7. Prentsa harremanak

Zinemaldiko antolakuntzatik posta elektronikoz jaso ditugun mezu guztiak bi hizkuntzetan edo euskaraz izan dira.

3.2. AHOZKO ERABILERA

3.2.1 Ekitaldi Nagusiak

3.2.1.1. Inaugurazio eta amaiera ekitaldiak

Inaugurazio eta amaierako ekitaldiak internetez jarraitu ditugu Zinemaldiko web gunetik.

Inaugurazio ekitaldian Marta Etura eta Barbara Goenaga aritu ziren aurkezle lanetan. Ekitaldian izan ziren bideoetan gaztelera nagusitu zen (sailak gazteleraz, interbentzio gehienak gazteleraz izan ziren eta euskaraz egon ziren bakar batzuk gazteleraz azpidatziak izan ziren, parte hartzen zutenen lanbideak gazteleraz ...). Ekitaldian zehar, bi aurkezleek hitza txandaka hartu zuten eta aurkezpenen interbentzio gehienak gazteleraz izan ziren (guztira 28 minutu). Euskaraz hamasei interbentzio labur besterik ez ziren egon (guztira hiru minutu eta 30 segundo), gazteleraz, berriz, 52 interbentzio (guztira 20 minutu eta 30 segundo). Hainbat gonbidatuk ere hitza hartu zuten, kasu hauetan beraien jatorrizko hizkuntzan hitz egiten zuten eta itzulpenik ez zen egin; guztira 4 minutu.

Sari banaketa eta amaiera ekitaldian ere Marta Etura eta Barbara Goenaga izan ziren aurkezleak. Euskararen erabilerari dagokionez, inaugurazio ekitaldian baino urriagoa izan zen. Euskararen presentzia hainbat parte hartzetan izan zen, baina beti oso laburrak, askotan agurtzeko bakarrik eta zenbait sari banaketaren izenak aipatzeko orduan. (Gazteleraz egin ziren interbentzioek 20 minutu eta 22 segundoko iraupena izan zuten, euskarazkoek, berriz, minutu 1 eta 30 segundoko iraupena izan zuten). Beste hizkuntzetan izandako interbentzioak 11 minutu eta 37 segundotakoak izan ziren. Iaz bezala, erabili ziren bideo guztiak (gehienak filmen laburpenak) jatorrizko hizkuntzan gaztelerazko azpitoluekin eskaini ziren. Bideoen errokulazio guztiak gaztelera hutsez zeuden (premio del público, mejor guión, Concha de plata al mejor actor, premios nuevos directores...).

3.2.1.2. Donostia Saria banaketa ekitaldia

Aurten banatutako Donostia Sarian euskararen erabilera, iaz bezala, oso urria izan da. Eurne Ormazabalek egin zuen ekitaldiaren aurkezpena. Euskaraz, hasierako eta amaierako agurrak, eta erdialdean interbentzio bakarrean (minutu bat eta 8 segundo) besterik ez zen egin. Ekitaldian zehar ipinitako bideoak jatorrizko bertsioan entzun ziren, hau da, ingelesez, eta azpitoluak gazteleraz irakur zitezkeen. Sariduna aurkezteko hitza hartu zuenak gazteleraz egin zuen eta ondoren saridunak (Glenn Close), hasierako agurra euskaraz egin ondoren, ingelesez hitz egin zuen (3 minutu), interneten itzulpena gaztelerara soilik egin zuten.

3.2.1.3. Zinemira sari-emate gala

Euskal Zinema sari banaketan bi aurkezle izan ziren: Nagore Aranburu eta Koldo Martinez. Aurkezleek euskara eta gaztelera tartekatu zuten oreka mantenduz. Baina saritutakoen kasuan eta Zinemira saria jaso aurretik proiektatutako bideoan gaztelera izan zen nagusi (Elias Querejeta, Rocio Garcia – kazetaria- eta Pamela Rolfe - kazetaria- gazteleraz aritu ziren. *Bi anai* filmaren zuzendaria eta ekoizlea saria jasotzerakoan euskaraz aritu ziren, baina galaren bukaeran filmaren aurkezpena gazteleraz egin zuten).

3.2.2. Prentsaurrekoak

Donostiako Zinemaldiaren aurretik egin diren prentsaurrekoetan gaztelera gailendu da, nabarmen. Euskara hasierako agurretan bakarrik erabili da edo laburpen txiki bat egiteko (esate baterako, Aurkezpen prentsaurrekoan, Culinary Zinema sailari buruz egindako prentsaurrekoan, galen kontzepzioaren eta funtzionamenduaren berri emandakoan). Kartelaren aurkezpen prentsaurrekoan, aldiz, bi hizkuntzak (euskaraz zein gaztelera) era orekatuan erabili ziren, bata zein bestea tartekatuz eta hizkuntza bakoitzean informazio propioa emanez.

Bestetik, Zinemaldian zehar egin diren prentsaurrekoetan, azken urteetan bezala, moderatzaileak gehienetan, agurtzeko lehenik euskara erabili du, ondoren gaztelera eta batzuetan ingelesa, baina beti gaztelera nagusitu da. Bestalde, prentsaurrekoetan itzulpen zerbitzua dago.

Azkenik, internetetik prentsaurrekoak jarraitzeko aukera ere izan da. Web gunean sartzean euskarazko bertsioa aukeratu dugu. Hizlariak gaztelera edo beste hizkuntza batean hitz egin dutenean itzulpena gaztelera edo ingelesera izan dira kasu gehienetan, edo ez da itzulpenik egin. Horretaz gain, oso gaizki entzuten da.

3.2.3. Aurkezpenak eta mahai-inguruak

Behatzaileek jasotakoan ikusten denez, aurkezpena izan duten emanaldi gehienetan sarrera bi eletan egin da, hala ere, kasu batzuetan pelikularen zuzendariak gaztelera eman ditu azalpenak eta beste hizkuntza batean izan denean itzulpena gaztelera egin da bakarrik. Euskal Herrian ekoiztutako filmen aurkezpenetan euskarazko presentzia handiagoa izan da. Beste batzuetan, berriz, filmaren berri eman dute bi eletan edo hiru eletan (hau da, izenburua, zuzendaria... besterik gabe). Hala ere, aurkezpenak orokorrean hartuta gaztelera gailentzen da.

Mahai-inguruei dagokienez, beste urteekin alderatuta, aldaketa sumatu dugu. Aurkezpenetan bi hizkuntzak erabili dira eta galderen tartea euskaraz adierazi ohi zuten. Horretaz gain, galdera eta galdera artean, euskaraz adierazten zuen galdera eskaera ("*beste galdera bat?*", "*orain bai?*", "*beste galderarik?*", "*bai?*", "*hemen, mesedez?*"...) Galderak euskaraz izan direnean, euskaraz erantzun dituzte gaztelera itzuli gabe (Wild Bill filmaren solasaldian, adibidez). Zabaltegi topaketak, Horizontes Latinoaseko gosariak eta foro digitala gaztelera hutsez izan ziren. Zabaltegiren elkarrizketen kasuan, ez zegoen euskarazko itzulpen zerbitzurik.

3.2.4. Jendaurreko zerbitzuak

Zinemaldiko bulegora joan garenean edota telefonoz hitz egin dugunean, euskaraz egin ahal izan dugu. Kursaal gunean, informazio leihatiletan, aretoen sarreretan, sarreren salmentako edota akreditatuentzako leihoetan, euskaraz jaso dugu zerbitzua.

3.3. FILMAK

Aurtengo ekitaldian, euskaraz azpтитulu elektronikoa zuten filmak 25 izan dira eta 8 euskaraz ekoiztutakoak edo beste hizkuntzen artean euskara erabili dutenak. Euskaraz azpтитulua zuten 47 emanaldi izan dira, eta euskarazko jatorrizko bertsioan 14 emanaldi izan dira.

Guztira, 206 film inguru egon dira ikusgai (Zinema ikasleen topaketen 15 laburmetraiak kenduta), beraz, euskaraz azpтитulua zutenak % 12,14 izan dira eta

%3,88a euskarazko filmak (orotara %16). Emanaldi kopuruei erreparatuz gero, gutxi gorabehera, 613 emanaldi izan dira, euskaraz azpigitulua zutenak %7,67, euskarazkoak % 2,77 (orotara %10,44).

4. ONDORIOAK

4.1 FILMAK

Aurreko urteetan aipatu bezala, aldaketa nabariena Euskal Zinemaren Eguneetik euskal zinemak sail propioa izatera pasatzea izan da. Euskal Herriko zuzendarien, eta Euskal Herriko ekoiztetxeek ekoiztiriko filmak Zinemira-Euskal Zinemaren Panorama atalean ikusi ahal izan dira. BAGERA Elkarateak aurrerapausotzat jotzen duen arren, euskarazko emanaldiak sail guztietara zabal daitezen eskatzen jarraitzen du.

Kuantitatiboki aurten izan duen aldaketa iazkoarekin alderatuta honakoa izan da: 8 film euskaraz ekoiztitakoak izan dira (iaz baino 2 gehiago), eta euskarara azpidatziak izan diren filmak iaz baino 7 gehiago izan dira (25 filmek izan dute euskarazko azpigitulua). Euskaraz bikoiztuak edo azpigituluak izan dituzten filmak, aldeztetik iragarriak izan dira. Orokorrean iazko datuak, aurtengoekin konparatuta, euskarazko emanaldietan ez da aldaketarik egon (%10,28 izatetik aurten %10,44 izatera pasatu dira). Zinemaldian ehunka dira film emanaldiak eta horietatik gutxiegi dira euskara hutsean. Horretaz gain, euskaraz ekoiztutako, azpidatzitako edota bikoiztutako filmak sail guztietara zabaltzeko behar direla uste du BAGERA Elkarateak eta are gehiago, urtetik urtera sail bakoitzeko euskarazko film kopuruak igotzen joan. Aurten sailez-sail izan ditugun kopuruak honakoak izan dira: Sail Ofizialean, 20tik bakarra (%5); Zabaltegin, 41 filmetatik bakarra (%2,44); Zinemiran 11 filmetatik 6 filmetan entzun ahal izan dugu euskaraz (% 54,55); Jacques Demy 6 pelikula izan dira euskarara azpidatzita (%28,57); American way of death-en 40 filmetatik 15 euskaraz azpidatzita (%15); Itzal Digitalak sailean 20tik 6 (%30). Azkenik, Horizontes Latinosen, Made in Spain-en, Culinary Zinema-n, Belodromoan, Harrentzako Zineman, TVE-ko galan, EITB-ko galan, Zinema Ikasleen Nazioarteko Topaketen film laburretan, Mexikoko Zineman eta proiektatutako emanaldi berezietan ez da egon euskararen presentziarik (%0).

4.2. IDATZIZKO MATERIALA

Oro har, Zinemaldiaren antolakuntzak argitaratutako idatzizko material gehienetan informazio guztia bi eletan edo hiru eletan dago euskararen erabilera bermatuz. Hala ere, sailen izenak gazteleraz idatzita agertzen dira edota hiru eletan direnean gaztelerazko letra tipoa lodiago eta handiagoa izaten da, hala nola, "Sección Oficial", "4+1 Cine Mexicano contemporáneo", "Sombras digitales" edo "Velódromo" sailen izenak.

4.2.1. Zinemaldiaren argitalpenak eta beste materiala

Egindako argitalpen, sarrera, bono... gehienak bi eletan (euskaraz eta gazteleraz) edo hiru eletan (euskaraz, ingelesez eta gazteleraz) izan dira. Hala ere, urtero errepikatzen diren hainbat hutsune daude sailen izenen erabileran eta oharretan. Bestetik, filmez filmeko gidan gazteleraz idatzitako testuak hizki lodiz daude, gaztelerazko testuak nabarmenago ikusten direlarik.

4.2.2. "Zinemaldia" egunkaria

Aurreko urteko datuekin alderatuta, ikusi ahal izan dugu egunkariaren atal orokorrean dagokienez, euskarak portzentajearen behera egin duela artikuluen nagusietan (%20,31etik 17,43ra).

Artikulu nagusiak sailez sail aztertuta, honako emaitzak ditugu iaizko datuekin konparatuta: aldaketa nabarmenena euskarazko artikuluen jaitsiera aldetik, *Zinemira* (%71,43tik %40ra), *Donostiako sarietan* (%33tik 0ra), *berriak eta sariak* atalean (%20tik 0ra) eta *Epaimahaia* atalean (%25etik 0ra) daude. Euskarazko artikuluen igoera aldetik, atzera *begirako klasiko*en sailean (0tik %8,33ra) eta *ikasleen topaketetan* (0tik %50era) izan dira nabarmenenak.

Orokorrean "Zinemaldia" egunkarian euskarak duen presentzia (%17,43) igo den arren, aurten ere, hirugarren mailan jarraitzen du, gaztelaren (%61,88) oso azpitik eta ingelesaren (%20,69) behetik.

Kezkagarria da, azterketan ikusten den moduan, sailen %47k (ia erdiek) ez dutela euskarazko artikuluen nagusirik (*Horizontes Latinos*, *4+1 Mexikoko Zinema Garaikidea*, *Donostia Sariak*, *berriak eta sariak*, *The Industry Club*, *Epaimahaia*, *Itzal Digitalak* eta *Made in Spain*).

Artikulu laburren kasuan, euskarazko artikulurik ez duten sailak 7 dira, artikuluen nagusietan bezala, baina sail batzuk aldatu egiten dira. Euskarazko artikulurik izan ez duten sailak honakoak dira: *Horizontes Latinos*, *Zinemira Culinary Zinema*, *4+1 Mexikoko Zinema Garaikidea*, *Ikasleen Zinema Topaketak*, *Itzal digitalak* eta *Made in Spain*. Larritzat jotzen dugu dauden 17 sailetatik ia erdiek euskarazko artikuluen laburrik ez izatea. Are gehiago, sail batzuetan ez artikuluen nagusietan ez laburretan ere, ez da euskararen arrastorik egon (*Horizontes Latinos*, *4+1 Mexikoko Zinema Garaikidea*, *Itzal digitala* eta *Made in Spain* sailetan hain zuzen).

Artikulu kopuruei dagokienez (artikulu nagusi eta laburrak kontutan hartuta), iaizko datuak kontutan hartuta, euskara hutsezko artikuluen kopurua jaitsi egin da (%17,05etik 14,76ra) gaztelarazko artikuluen nagusiak igo diren bitartean (%55,08tik 58,39ra).

Aurten egon den aldaketa positibo bakarra, Zinemaldiko Staff-a (zuzendaria, diseinua eta maketazioa, erredakzioa...) gaztelara hutsez idatzita egotetik, aurten euskaraz idatzita ikusi ahal izan dugula egunero.

4.2.3. Web gunea

Aurten ere, lehenengo pantailan hizkuntza aukeratzeko aukera ematen zuen. Baina, zuzendu beharreko hutsuneak daude. Besteak beste; foroak, bideoak, zenbait audio... Prentsaurrekoen kasuan, ez dira batere ongi entzuten eta asko ez daude euskarara itzulita.

4.2.4. Prentsa oharak eta bestelakoak

Bi eletan edo hiru eletan izan da prentsari zabalduetako informazioa.

4.2.5. Zinemaldiak argitaratu ez duen materiala

Idatzi hauek Zinemaldiak zuzenean argitaratzen ez dituela badakigun arren, Zinemaldiak honen erabilera egiten duen neurrian, eta antolatzaile bezala duen ardura kontutan izanda, ez ditugu aipatu gabe utzi nahi, hobetzeko asko dagoela iruditzen baitzaigu; euskararen presentzia oso eskasa da argitalpen horietan.

4.3. IRAGARKIAK

Egunkari ofizialean azaldutako iragarkiez gain, esku orriak, panelak, standak, etab. ere hartu ditugu kontuan. Ikaragarria da Zinemaldian zehar ikus dezakegun iragarki mordoak; baina, tamalez, ia gehienak gaztelera hutsean daude.

Egunkari ofizialean, euskara hutsezko iragarkiak jaitsi egin dira nabarmen (%9,23tik 1,53ra). Iragarle bakarria egon da euskara hutsez egin duena eta 3 egunetan bakarrik. Iragarki eta baita iragarle kopuruari dagokionez, aurten jaitsi egin da; esan bezala iragarle bakarria izan da euskara hutsez, Kutxak jarritako iragarkia, hain zuzen, 3 egunetan euskara hutsean eta 6tan gaztelera izan da. Bi eletan egin dituzten iragarleak nabarmen gora egin du 2tik 8ra; 6 gehiago eta hiru eletan 8k. Beraz, iazkoarekin alderatuta, oro har euskararen presentzia izan duten iragarkien kopurua kontuan hartuta, iragarki kopurua igo egin da (30etik 57ra) eta iragarle kopurua ere nabarmen igo da (5 iragarle izatetik 18ra).

4.4. AHOZKO ERABILERA

Orokorrean, Nazioarteko Zinemaldian, gaztelera, euskara eta ingelesa erabiltzen da, baina, dudarik gabe, gaztelera gailentzen da. Bestalde, idatzizko erabileran Zinemaldiak euskararen erabilera egokia bermatzeko egiten duen ahalegina ez da ahozkoan nabaritzen. Euskararen ahozko erabilera agurrak egitera mugatzen da askotan, eta bi hitzetan gelditu ohi da. Euskaraz ematen den informazioa ez da itzulpena izaten baizik eta erabiltzen den hizkuntza bakoitzak informazio propioa ematen du. Hau positibotzat jotzen dugu.

Aurten, iaz bezala, **ekitaldi berezietan** bideoak erabili dira. Azpigituluak eta irakur zitezkeen gainontzekoak gaztelera hutsez zeuden eta euskaraz egin direnean gaztelera azpidatziak izan dira. Euskarak merezi duen lekua izateko asko falta da eta ekitaldi hauetako aurkezle bat gutxienez euskalduna izan ohi denez, aurrerapauso garrantzitsuak emateko aukerak daudela uste dugu. Defizit hau hobetzeko dauden oztopoez jabetzen gara, baina oztopo horiek sortzen dituztenei euskararen presentzia areagotzeak daukan garrantzia erakutsi eta aurrerapausoak eman beharko liratekeela uste dugu.

Aurkezpen eta solasaldietan gaztelera da nagusi. Askotan, euskara modu sinboliko batean soilik agertzen da, agurtzeko momentuan. Aurkezpenak motzak izaten dira baina gaztelera ematen da informazio gehiena; euskara, bi hitzetan agurtzeko soilik erabili ohi da. Batzuetan filmeko parte hartzailearen batek hartzen du hitza (euskara edo gaztelera ez den hizkuntza batean), eta itzulpena egitekotan gaztelera egiten da soilik.

Solasaldietan ere gaztelera da nagusi. Hala ere, aurten, solasaldi batzuetan dinamizatzailerak euskara iazko solasaldietan baino gehiago erabili duela uste dugu, hala nola, galdera tartea zabaltzeko orduan edo galdera egiten zuenari hitza emateko orduan eta horrelako kasuetan. Aurten, beste hizkuntza bat erabili denean, itzulpenik ez da egin eta euskaraz galdetu denean ere, euskaraz jaso du erantzuna, gaztelera itzuli gabe. Zabaltegi topaketetan eta Horizontes Latinoaseko gosarietan ez zen euskara ezertarako entzun, are gehiago, ez zegoen aldibereko itzulpenik euskaraz entzuteko aukerarik.


Prentsaurreko guztien metodologia antzekoa izaten da. Gehienetan euskara hasierako agurrerako erabili da, eta ondoren, luze zabalago gaztelera aritu dira. Ondoren, filmeko parte hartzaileek beren hizkuntzan hartzen zuten hitza. Kazetari bakoitzak itzulpena nahi duen hizkuntzan entzuteko aukera dauka, bakoitzak zenbakitxo batekin; horien artean euskaraz entzuteko aukera zegoen. Itzulpen zerbitzuak egoki funtzionatu duen arren, itzulpenak ez dira behar bezain egokiak izan. Bestalde, internet

bidez jasotzen ziren prentsaurrekoetan, ez da behar bezala entzuten eta prentsaurreko asko euskarara itzuli gabe daude.

5. PROPOSAMENAK

1. Sailen izenen arteko oreka mantentzea, euskarazko edo bi eletan dauden sailak programatuz eta ondoren izen elebidun horiek Zinemaldiarekin erlazionaturiko arlo guztietan erabiltzea. Eta bi eletan dauden sailetan euskarak lehentasuna izatea (Sail Ofiziala, Belodromoa, Itzal digitalak...).
2. Filmei dagokienez, euskarak leku zabalago baten beharra duenez, gutxienez, aurreko urteetako emanaldi kopurua handitzen joatea proposatzen dugu, eta euskarazko emanaldiak sail guztietan izan daitezela.
3. Hainbat filmen aurretik egin ohi diren aurkezpen laburretan, erabiltzen diren hizkuntzen artean oreka mantentzea eta euskara ez mugatzea soilik lehenengo ongi etorriko bi hitzetara. Ekitaldi berezietan ere, euskararen erabilera gutxienez gazteleraren parera iristeraino.
4. Solasaldietan, aurkezpenak eta azalpenak modu orekatuan euskaraz eta gaztelaniaz izatea. Modu natural batean euskara erabiltzea. Eta, galderaren bat euskaraz eginez gero, erantzuna euskaraz jaso ahal izatea bermatzea.
5. "Zinemaldia" egunkarian ere, atal bakoitzean idazten dena orekatuagoa izatea, hau da, sail edota atal guztietan euskararen presentzia egoteaz gain gazteleraren parekoa izatea. Bestalde, hainbat atal bi eletan jartzea edota leku arazoa dagoenean informazio bera eskaintzeko hizkuntzak tartekatzea.
6. Zinemaldiaren antolakuntzak, Zinemaldiaren barnean dauden beste hainbat ekitaldi eta eragileren idatzizko euskarrietan, euskara normaltasunez erabiltzera bultzatzeko ahaleginak egitea.
7. Zinemaldiaren inguruan dauden iragarle anitzei Donostiako egoera linguistikoa azaltzea eta euskara normaltasun osoz erabiltzera animatzea.
8. "Galetan" eta sari banaketan emanaldietan euskararen erabilera, gutxienez, gaztelerarekin orekatua izatea.
9. Prentsaurrekoetan euskara gazteleraren neurrian erabiltzea eta galdera tartea euskaraz zabaltzea, eta galdera tartean moderatzaileak euskararen erabilera bultzatzea (*galdera gehiago?, Bai? Hurrengo?, Mikrofonoa gerturatu...*).

Euskararen erabilerak, zinemaldian, oro har, ez du gora egiten. Besteak beste hori nabaritzen dugu euskararen presentzia filmetan, Zinemaldiaren atalik garrantzitsuenean, ez delako nabarmen igo azken urteetan zehar eta oraindik ere % 16 xume batean dagoelako. Hala ere, aurten ere, aurreko urtean aipatu bezala, *Zinemira*-ren saila positiboa dela ikusten dugun arren, ez dela nahikoa uste du BAGERA Elkarteak .



Gainera ahozko erabileran ez da aldaketarik nabaritzen azken urte hauetan, antolakuntzak ez erabiltzeaz gainera, jendeak erabil dezan ez delako sustatzen ari. Inaugurazio eta amaiera ekitaldietan ere, euskararen presentzia oso urria da eta bideoen azpitituluak gazteleraz bakarrik daude.

Idatzizko materialean, berriz, Zinemaldiko antolakuntzak bere esku dagoen materialean elebitasuna mantentzen da gehienetan, hizkuntzen arteko oreka mantenduz. Hala ere, aipatu bezala, sailen izenetan gaztelera gailentzen da, bi eletan dauden sailetan gaztelerazkoa bakarrik erabiltzen delako edota hizki lodiz eta tamaina handiagoan agertzen direlako. "Zinemaldia" egunkarian ere, lan HANDIA dago egiteko euskararen erabilera handitu dadin, bertan azaltzen diren artikuluetan euskarak, gazteleraren erabileratik urrun eta ingelesaren azpitik jarraitzen duelako.


Azkenik, eta Zinemaldiko antolakuntzatik kanpo egon arren, Zinemaldiaren inguruan biltzen diren euskarri, iragarki eta beste motatako material idatzietan euskararen presentziarik ez dago ia. Horregatik Zinemaldiko antolakuntzak eta erakunde publikoek bere esku dagoena egin beharko luketela uste dugu, Zinemaldiaren parte diren beste eragile hauek ere euskara erabiltzera animatzeko.

6. ERANSKINAK


1. Eranskina. Aldizkaria atalka banatua hizkuntza erabileraren neurketa ehunekotan.

Aldizkariaren atalak / hizkuntzak	EUSKARAZ	GAZTELERAZ	INGELESEZ	FRANTSESA	GUZTIRA
Argazkien oinak	21,14	72,36	6,50		100,00
Argazkiak	21,95	75,61	2,44		100,00
Programazio atalean sinopsiak	29,63	40,74	29,63		100,00
Agenda* + Programazioa	0,00	100,00	0,00		100,00
Staff	100,00	0,00	0,00		100,00
Artikulu nagusiak					
<i>Inaugurazioa</i>	25,00	50,00	25,00		100,00
<i>Sail ofiziala</i>	33,33	66,67	0,00		100,00
<i>Zabaltegi</i>	25,00	75,00	0,00		100,00
<i>Horizontes Latinos</i>	0,00	100,00	0,00		100,00
<i>Zinemira</i>	40,00	60,00	0,00		100,00
<i>Culinary Zinema</i>	16,67	83,33	0,00		100,00
<i>4+1</i>	0,00	100,00	0,00		100,00
<i>Belodromoa</i>	40,00	60,00	0,00		100,00
<i>American way of death</i>	10,00	90,00	0,00		100,00
<i>Jacques Demy</i>	8,33	75,00	16,67		100,00
<i>Donostia Sariak</i>	0,00	100,00	0,00		100,00
<i>Berriak + sariak</i>	0,00	100,00	0,00		100,00
<i>The industry Club</i>	0,00	14,29	85,71		100,00
<i>Epaimahaia</i>	0,00	100,00	0,00		100,00
<i>Ikasleen Topaketak</i>	50,00	50,00	0,00		100,00
<i>Itzal digitalak</i>	0,00	100,00	0,00		100,00
<i>Made in Spain</i>	0,00	100,00	0,00		100,00
Guztira	13,51	78,38	8,11	0,00	100,00
Artikulu txikiak					
<i>Inaugurazioa</i>	16,67	16,67	66,67		100,00
<i>Sail ofiziala</i>	21,43	17,86	60,71		100,00
<i>Zabaltegi</i>	37,50	43,75	18,75		100,00
<i>Horizontes Latinos</i>	0,00	0,00	100,00		100,00
<i>Zinemira</i>	0,00	33,33	66,67		100,00
<i>Culinary Zinema</i>	0,00	50,00	50,00		100,00
<i>4+1</i>	0,00	100,00	0,00		100,00
<i>Belodromoa</i>	25,00	50,00	25,00		100,00
<i>American way of death</i>	13,33	86,67	0,00		100,00
<i>Jacques Demy</i>	33,33	33,33	33,33		100,00
<i>Donostia Sariak</i>	33,33	66,67	0,00		100,00
<i>Berriak + sariak</i>	12,50	79,17	8,33		100,00
<i>The industry Club</i>	3,85	30,77	65,38		100,00
<i>Epaimahaia</i>	4,00	60,00	36,00		100,00
<i>Ikasleen Topaketak</i>	0,00	66,67	33,33		100,00
<i>Itzal digitalak</i>	0,00	100,00	0,00		100,00
<i>Made in Spain</i>	0,00	0,00	100,00		100,00
Guztira	15,51	46,52	37,97	0,00	100,00
Guztira	18,60	62,60	18,80	0,00	100,00


Artikulu nagusiak atal bakoitzean (2. eranskina 1)




Artikulu txikiak atal bakoitzean (2. eranskina 2)




Artikulu nagusien konparaketa




Artikulu txikien konparaketa



Artikuluaren konparaketa guztira



Iragarkien konparaketa (3. eranskina. 2)



7. IRITZI ARTIKULOAK.

2011/09/28 Tolosaldeako euskararen semaforoan azaldutako iritzia:

Donostiako Nazioarteko Zinema Jaialdian izan da Euskararen Semaforoa

Euskarak presentzia du Zinemaldiko ekitaldi gehienetan. Jendaurreko tratuan ere, euskara harreman hizkuntza da. Eta bestelakoetara oso ohituta gaudenez euskaldunok, paradisua bailitzan hartzen dugu Zinemaldia. Irla bat, non euskaldunoi euskaraz erantzuten zaigun, non ekitaldi bakoitzaren lehen hitza euskaraz egiten den, non euskaldun bezala errespetatuak sentitzen garen.

Gure inozentzia ordea, berehala zapuzten da ikusten dugunean Australiatik etorritako kazetari begi-urdinari, ondoko leihatilan, guri bezain abegikor eta sinpatiko erantzuten diotela bere hizkuntzan. Eta berdin produktore frantses bati, eta berdin Malagako zinema jaialdiko arduradun bati. Eleaniztasun orekatua da hori.

Zinemaldian lau hizkuntza nagusiek (euskarak, gaztelaniak, ingelesak eta frantsesak) izan behar duten espazio, garrantzia eta denbora neurtua dago, neurtuegia, akaso. Euskal Herrian egoera ezberdina bizi duten hizkuntzentzako, trataera berdina.

Maialen Lujanbiok Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako finalean kantatu zuen bezala, Donostiako Zinema Jaialdia ez dago "euskaratik eta euskaraz" pentsatuta. Bere nazioarteko dimentsioa ikusita, susmoa dugu, antolatzaile taldeak ingelesa erabiliko duela nagusiki. Eta tristea da esatea, baina Zinemaldia gaztelaniaren inguruan ardaztuta ez egoteak bermatzen dio, hain juxtu, euskarari, besteen pareko presentzia.

Hori Zinemaldiak kanpora begira daraman hizkuntza politikari dagokionez esan dezakeguna. Beste hainbat ertz ere baditu jaialdiak, euskaldunontzat batere borobilak ez direnak. Filmen promoziorako eta salerosketarako balio izaten du astebete irauten duen ekitaldiak. Zurrumbilo horretatik urrun ibili garen arren, kanpotik begiratuta, ez dirudi zirkuitu horietan euskara batere entzun denik. Euskara ez da, itxuraz, propagandarako eta salmentarako hizkuntza. Balio erantsirik ez du.

Bitxia egin zaigu Euskal Herrikan kanpoko kazetariak euskararekiko agertu duten jarrera. Haien artean Zinemaldian entzun litezkeen hamarnaka hizkuntzetatik "beste bat" da euskara. Errusiera, japoniera, alemana, arabiera, portugesa edota turkieraren pareko; Baina bisitatzen ari diren toki horretako bertako jatorrizko hizkuntza denaren arrastorik ez.

Bien bitartean, ez ditugu ahaztu nahi aurtengo edizioan aurkeztu diren euskarazko filmak: "Urte berri on, amona!", "Bertsolari", "Bi anai" ... Baina horietako batean jarri nahi dugu arreta: "Arriya" pelikulan. Guk ahotan ibili dugun gaiaren inguruan gogoeta egiteko gonbita egiten digu. Gai asko ageri dira filma horretan eta horietako bat hizkuntzen erabilera bera da.

Badugu zeregina oraindik euskara lehen planora ekarri, Zinemaldiko izar protagonista bihurtu eta alfonbra gorrian paseatzen jarri nahi badugu. Lehen pausoa izan liteke Gaztelun bizi den Jose Luis Rebordinos Zinemaldiko zuzendariak hartu omen duen erabakia. *Off the record* jakin dugu, AEKra gerturatu dela irakasle eske euskara ikasteko. Bejondeiola!

2001/10/1 Berrian Beatriz Zabalondo irakasleak idatzitako iritzi artikulua

Euskara zineman

Amaitu berri da Donostiako Zinemaldia. Oso goian amaitu ere, dirudienez. Poztekoa da, benetan. Eta horretara iristeko lan egin duen taldeak, urtebetez gogotsu jardundako kideek, alegia, merezi dute sari hori, gure aitortzaz gainera. Entzun dugu grinaz aritu dela txalupatik tiraka zuzendari berria ere; topa lemazainari ere, noski, eta urte askotarako guztiei.

Ikus-entzunezkoen sistema

Zinemaldia erakusleihu ona da gure zinemaren uza ezagutzeko, gure zinemagileen azken lanez eta haiei buruzko albisteez jakiteko. Euskarazko zinemaz ari naiz. Euskarazko ikus-entzunezkoek: nola etxean propio sortutakoez, hala kanpoko produkzio euskaratuez. Euskarazko ikus-entzunezkoen sistemaz dihardut, zehazki esateko, polisistemaren teoritik begiratuta esango genukeenaz. Eta zer sartzen dugu termino potolo horretan? Mota eta genero askotariko testuak (edo produktuak), ikus-entzunezko edozein euskarritan igortzen eta hartzen direnak, hemengoak eta euskarazko jatorria dutenak, eta kanpoko edozein kulturatan sortuak eta euskarara ekarritakoak. Hala, itzulitako ikus-entzunezkoak gure kulturaren integratzen ditugu, eta euskal kulturaren barruan betetzen dute bete beharreko funtzioa eta bilbatzen dira haren ehunean.

Ez nabil sua asmatzen: literaturaz ariko bagina, kanpoko literatura euskaratua «gurea» dela esaten ariko ginатеke, gure literatur sistemakoa. Zer itzuli eta norentzat —eta noiz, akaso—, ez da oraingo kezka; bistan da ezin dugula dena itzuli. Batetik, ez ginатеke iritsiko literatura guztia itzultzera; bestetik, ezta dena irakurtzera ere. Merkatua arinegi doa bere bidean, gainera, gu haren trenpu onean ibiltzeko gai garelа sinesteko.

Arestian aipatu dugun sistemaren ehunduran ez dira produktuak bakarrik sartzen: ikus-entzunezkoek ikusteko aretoak ere parte dira sisteman; testu edo produktu horiek denak banatzeko sare eta azpiegiturak ere bai; baita prentsan eta gainerako medioetan iragartzeko baliatzen diren diskurtsoak ere; eta, nola ez, autoreak (lan kate osoan hondar aleren bat jarri dutenak) eta ikusleak eurak. Faktore edo elementu horien arteko tirabirak eta harremanak ere kontuan hartzekoak dira, jakina. Sistema handi horretan, esaterako alorka edo eremuka edo hizkuntzaka sailkatzen ditugu azpisisistemak (hortik, polisistema deitzea).

Gure uztarako ekarritakoa

Aurtengo Zinemaldiaren eskaintzari gainbegiraturе egin diogu, gure kulturarako irabazi dugun uztaren nolakoaz irudi bat egiteko. Programazioari erreparaturе gero, Sail Ofizialean hamasei film lehiatu dira, eta beste lau eman dituzte lehiaketatik kanpo. Lehiatutako filmetarik hiru gaztelaniazkoak ziren; gainerakoak, beste hizkuntzaren batean filmatuak: ingelesez, frantsesez, koreeraz, japonieraz... Gaztelaniaz filmatutako hiru lanak ingelesezko azpidatziekin eman dituzte. Lehiaketan sartu diren gainerako hamahiru filmak, gaztelaniazko (eta ingelesezko) azpidatziekin jarri dituzte ikusgai.

Lehiaketatik kanpo geratu diren lau filmetarik bi ingelesez ziren; bat, frantsesez, eta laugarrena, euskaraz. Asmatuko duzue zein hizkuntzatan azpidatzi diren? Bai, jakina.

Lehiaketan sartutako filmek izan duten tratu bera eman zaie horiei ere. Alegia, ingelesezko filmak gaztelaniaz azpidatzita eman dituzte; eta film frantsesa eta euskarazkoa, gaztelaniazko (eta ingelesezko) azpidatziekin.

Kontuak eginda, Sail Ofizialean gure uztarako bildu duguna euskarazko film luze bat izan da. Etxean sortutakoa, beraz. Erdaraz ekoitzitako film bat bera ere ez zaigu etxerako geratu. Hala ere, seguru asko, proportzioa ez da disparate bat. Horren alde nahiz kontra egiteko arrazoiak erraz samar aurkitu daitezke, eta argudio sorta batekin esango dugu: edo ez dela nahikoa egiten euskarazko ikus-entzunezkoen alde, edo ez dagoela dirua alferrik gastatzeko premiarik Zinemaldira joan den batez besteko ikusle jendeak aise eta ondo baldin badaki gaztelaniaz.

Sail Ofizialeko film guztietan errespetatu da jatorrizkoa, baina, aldi berean, guztiak ikusi edo entzun dira, gutxienez, gaztelaniaz, emanaldi guztietan (eta gehienetan, ingelesezkoekin batera). Ni gehien harritu nauena ez da euskarazko azpidatzirik ez ikustea inon; ezta gaztelaniazkoak ez diren film guzti-guztietan gaztelaniazko azpidatziak ikustea ere. Gehien harritu nauena da ez dela film bakar bat erakutsi, behin ere ez dutela pasatu, demagun, bakarrik ingelesezko azpidatziekin. Ingelesez diot, gaur eta hemen, nazioarterako gehien erabiltzen dugun hizkuntza delako.

Ez zait iruditzen uste baino zinemazale gutxiagok dakiela ingelesez, askok baitakite. Baina, seguru asko, uste baino gehiagok egiten dugu gaztelaniaz eta askoz erosoago bizi gara eta gozatzen ditugu filmak gaztelaniaz, ingelesez baino. Ai ene! Eta hemendik ze urrun dagoen... euskaradun!

Zer eta nola iragarri

Orain txikieria bat irudituko zaio bati baino gehiagori filmak nola iragarri zaizkigun ikustea, baina nago, bere huskerian, kontu horrek asko esaten duela gure ikus-entzunezkoen sistemari diogun atxikimenduaz. Egunkari honek irailaren 10ean argitaratu zuen Zinemaldiko egitarauan ez zen ageri zein filmek zituen gaztelaniazko (eta ingelesezko) azpidatziak. Aldiz, markatua zetorren zein filmetan, zer ordutan eta zein aretotan zeuden euskarazko azpidatziak. Oso litekeena da toki arazoengatik erabaki izana hala egitea. Baina munduari euskaraz begiratzen dion kazeta honek ez al zituen euskarazkoaz beste hautu guztiak erakutsi behar egitarauan? Larriena ez da nola egin den, horrek gure barruan *zaratarik* sortu ez izana baizik. Pentsatuz, gainera, esker oneko izan behar dugula, euskarazko hautua egiteko erraztasuna eman zaigula eta.



Katalina Eleizegi, 36 behea
20009 Donostia
Tel: 943467181
bagera@bagera.net